


# Txapeldunak agur!



# drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 175. alea 2010ko urtarrila



# Elhuyarren joko hauek zuretzat nahi dituzu?



Bidali zure inauterietako argazkirik onenak eta zure izena drogeten@gmail.com helbidera edo ekarri Elexostera (Erdikokale 2., 1).

## Animatu!!

Jasotzen ditugun argazki guztien artean ordenagailurako joko hauek zozketatuko ditugu.

7 - 10 urteko umeentzat

Demoa: [www.elhuyar.org/armixkart](http://www.elhuyar.org/armixkart)



3-5 urteko haurrentzat

3 - 5 urteko umeentzat

CD-ROMa + pelutxea + motxila

Demoa: [www.elhuyar.org/zoozorooa](http://www.elhuyar.org/zoozorooa)

Argazkiak jasotzeko azken eguna: Otsailak 15.

\* Joko hauek [www.elhuyar.org/edizioak](http://www.elhuyar.org/edizioak) helbidean erosi daitezke. Bertan, %5eko deskontua dago produktu guztietan.



**UGARRO**  
AHOLKULARITZA FISKALA,  
JURIDIKOA  
ETA KONTABILITATEKOA



*Mutua General de Seguros*

Fernando Orbe. ekonomista  
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27  
177 postakutxa

[ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com) · [forbe@ugaro.com](mailto:forbe@ugaro.com)

943 17 43 44  
Faxa. 943 17 54 58

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Estibalitz González,  
Alazne Aiestaran,  
Eneritz Aranburu, Olatz Gil  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**

Igone Amesti, Patxi López,  
Iosu Yarza, Ane Saenz,  
Enrique Izagirre eta  
Fede Iturriagagoitia.

**ARGAZKIAK:**

Estibalitz González, Dorleta  
Vidal, Ángel P. del Pobil,  
Inforpress eta Biolur.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Jon Arano, Irune Martínez  
eta Ane Loiola.

**TIRADA:**

2.200 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Burua eta lepo alde gris urdinxka duen bezala, bere ezaugarri dira saman ezker-eskuman ageri zaizkion bi orban zuriak, lepoko dotore gisa. Usoetan handiena da bera eta artea da bere zuhaitzik gustukoena, udazkenean haretxen ezkurak jaten baititu. Beti esanda, hego haizeak ekartzen dituela; harekin batera, iraila, azaro eta abendu inguruan hemen dira paseko usook. Europako elurtzetan jatekorik ez eta Afrikara bidetan Oiz eta haren moduko mendi altueetatik pasatzen dira aldraka eta milaka, ikuskizun zoragarria eskainiz. Txori sendokote honek itzelezko estimazioa du ehiztarien artean; zoratu egiten omen dira hego-haizeak joko duela iragartzen entzutean, haizea badago pasea dagoelako.

## PAGAUSOA *Paloma torcaz Columba palumbus*



## Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO .....	4	KIROLZALE .....	17
Cáritas Ermua-Mallabia		Igor Astarloa eta Pedro Horrillo	
ELKARRIZKETA .....	5-7	ANITZ .....	18
Azucena Melón			
MALLABIAN ZER? .....	8-9		
Nire aitte eta ama, Kaiku pariel!			
ERREPORTAJEA .....	10		
Hartza eta gizakia			
MOTZEAN .....	11		
Trekking-a Marokon / Berbalag			
ERMUAN ZER? .....	14		
Ermua Antzokia			
BOTEPRONTOA .....	16		
Josu Mendizabal			

**Drogeteniturrrik  
kolaboratzaileak  
behar ditu.  
Deitu 943179350 telefonora  
edo drogeten@gmail.com  
helbidera idatzi.  
Behar zaitugu!!**

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Cáritas Ermua-Mallabia

**1965. urtean jaio zen  
Cáritas Ermua-Mallabia  
eta azken kanpainan  
7.500 euro batu zituzten.**

**- Zein urtetan sortu zen taldea?**

Gutxi gora behera, orain dela 45 urte.

**- Zenbat kide zarete?**

25 lagun gara taldean.

**- Zeintzuk dira zuen helburuak?**

Kristau alkartean bakoitzak bere egitekoa dauka. Gurea, gure inguruan egoera latzenez daudenengandik hurbil egotea da, egin behar horretan, beti ez dugula asmatzen jakinda. Elkartasunez jokatzuz, diruz lagunduz eta,aldi berean, jendeari entzunez, lagun eginez, bidegabekeriak salatuz eta gizarte sentsibilizatzea eraginez, guztiontzako mundu zuzenagoa eraiki dezakegula, Jaungoikoaren Erreinua gure artean agertzerak eman dezakegula sinesten dugu. Gizon eta emakume guztiak dira gure jardunaren jasotzaile, arraza eta erlijio bereizketarik egin barik.

**- Noiz batzen zarete eta non?**

Ermua-Mallabiko boluntario guztiak hilean behin batzen gara Ermuko parrokiako lokaletan. Gainera, egitekoaren arabera, boluntarioak euren arloko kideekin sarriago batzen dira. Hiruhilekoan behin, Berriz eta Zaldibarreko boluntarioekin batzen gara eta gainera, urtean zehar, erretiro eta elkarraldiren bat izaten dugu Bikaritzan eta Elizbarru-



ti mailan. Bizkaiko Elizbarrutiko gizarte-karitate arloko erakundea den Bizkaiko Caritasen barruan gaude eta horregaitik, ez dugu bakarka jarduten. Bi mila boluntariotik gora dihardugu Bizkaia osoan, behargin kontratatuen laguntzaz batera, prestasuna, ilusioa, erantzukizuna, lanerako gaitasuna... eskainiz.

**- Ze jarduera izan duzue urtean zehar?**

Harrera zerbitzua emateaz gainera, bigarren eskuko arropen denda (Ekorropa) daukagu eta josteta eta sukaldaritza tailerra. Herriko beste talde batzuekin batera, Lankidetzan eta Garapenerako Kontseiluan parte hartzen dogu. Hori dela eta, foro horretan era-

bakitzen diren jardueren prestaketan laguntzen dugu. Gabonetan postontziz-postontziz gutunak banatzen ditugu gure lanaren barri emanez, aurreko urtean batutakoa zertan erabili dugun zehaztuz eta egitasmo berrientzako dirua eskatuz. Honako honen bitartez, esker-rak eman gura dugu aurtengo Gabonaldiko kanpainan batu ditugun 7.523 euroengaitik eta gehien behar dutenei laguntzeko izango direla adierazi.

**- Zuekin harremanetan jartzeko?**

Norbaitek berri gehiago behar badu edo lagundu gura badigu, etor dadila parrokiako lokaletara. Han jasoko du informazioa eta Caritaseko boluntarioen batekin hartu emanetan jarriko dute.

**SAN ANTONIO**  
OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40  
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63  
Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**GARAGARDOGEGIA**  
CERYECERIA  
NHEV

**ZYTik**

OTARTEKO eta  
IMPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
berezitasuna

943 17 39 78





**Azucena Melón, Valentzia eta Seul artean:**

## **“Teknologia berriak eta ohitura zaharrak elkarrekin bizi dira Seulen”**

Azucena Melón ermuarra 17 urterekin Londresera joan zen au-pair moduan uda pasatzera eta 11 urtez geratu zen bertan. Informazio eta Turismo ikasketak egin zituen eta Filologia Ingelesean lizentziatu zen. Gaur egun, 38 urterekin, Valentzian bizi da, baina bizitzak Seulera eramango du aldizka datozen hiru urteetan, bere bikotekidearen lana dela eta. Dagoeneko 6 hilabete pasatu ditu bertan eta ekainean berriro bueltatuko da Koreara.

- **2009an hasi eta 2012ra arte Seul eta Valentzia artean bizi izango zara bikotekide eta semearekin. Zer dela eta?**

Angel, nire bikotekidea, irakaslea da Valentziako unibertsitatean eta adimen artifizial edo robotikako proiektu bat garatzen ari da Seul eta Valentziako unibertsitateen artean gauzatzen ari den egitasmo batean. Urte erdia Valentzian eta urte erdia Seulen egotea, klaseekin aurrera jarraitzeko modu bakarra da. Unibertsitateen funtzionatzeko era eta antolaketa ezberdina da bertan, ikerketak pisu handia duelako eta horretarako dirua egoten baita.

- **2009ko uztailetik abendura bitartean lehen egonaldia egin duzue Korean. Zer nolako esperientzia izan da?**

Uste baino hobea. Aldez aurretik ez nuen Koreari buruzko iritzirik. Ekialdeko Asiari buruz informazio gehiago dugu, Txina eta Japonetara batez ere; denak berdinak direla uste dugu, baina ez dute zerikusirik. Gu, portugesak, frantziarrak eta italiarrak berdinak gara esatea bezalakoa da. Guztiz ezberdinak dira haiek ere.

- **Joateko dudarik izan zenuen?**

Bai, gainera bi urte t'erdia

ko semea dugu eta ez nekien oso ondo zelan moldatuko zen. Udan joan ginen, ikasturtea hasi baino hilabete lehenago umea moldatzen joan ahal izateko eta gu biok ere moldatzen joateko.

- **Eta azkenean ondo moldatu zinen...**

Bai, Seulek liluratu ninduen. Europako hiri handiak bezain kosmopolita ez bada ere, (Londres edo Paris esaterako), bere asiar kosmopolismoa du. Gainera 24 orduz bizi da, 24 orduz dago zabalik... Egunean Seul eta gaueko Seul dago. Ikaragarria da. Sei hilabetez egon gara eta ez gara birritan leku berdinerara joan, parke eta mendi itzelak ditu.

- **Zein alde dago gure eta euren bizimoduaren artean?**

Alde handia dago. Teknologikoki ikaragarri aurreratu daude eta hona etorriko balira, teknologiarik dagoenez, hau hirugarren mundua dela pentsatuko lukete korearrek. Baina aldi berean, kulturalki, euren ohitura eta tradizioak mantentzen dituzte. Txartel magnetikoak, diru birtuala eta betiko merkatuak elkarrekin bizi dira. Bertan emakumeak kubilko egoten dira zuzetzat oilaskoa hiltzen, arrain sikuak saltzen... Oraindik pazientzia 'asiar' hori dute, nagusienganako errespetua...



- **Izandako gudaren aztararik geratzen da?**

Beno, oso oso 'amerikanizatuta' daude. AEBetako base militar handia dago eta Ipar Korearekin izandako gatazkaren ondorioz, euren salbatzailetzat hartzen dituzte amerikarrak. Ez naiz sekula Amerikan egon, baina Korean dauden frankiziak ikusita imajina dezaket zelakoa den. Starbucks, esaterako, leku guztietan dago.

- **Bizitzea merkeagoa da?**

Europarekin alderatuta ez da oso garestia. 'Won'a gora eta behera ibiliko zen, baina gu bertan egon garenean nahiko baxu zegoen. Garestiena alokairua da edo Zaran

erostea. Baina han egonda, Zaran sartzea ez zaizu burutik ere pasatzen.

- **Korearra ikasi duzu?**

Egia esan ez naiz gehiegi ahalegindu. Euren alfabetoa ezberdina da, baina esaten dutenez ez da oso zaila menperatzea: txinatar letren antzerako sinboloak dira, baina marrazki bakoitzari soinu bat dagokio. Beste kontu bat da jakitea zer esaten ari zaren. Harremana nuen gurasoekin ingelesez hitz egiten nuen eta telebista ere satelitez ikusten genuen, beraz ez dut behar hori sentitu.

- **Zuen semeak ere ingelesez hitz egiten du?**

**"Nire beldur bakarra umea zen.  
Ez nekien ondo moldatuko  
zen edo ez"**

**ILEAPAINDEGIA**  
*Izaskun*  
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

komunitateak  
aseguratuak  
**San Pelayo**  
aholkularitza  
fiskal eta juridikoa  
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**PUB YOMY**  
**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**



Bai, gaztelera ez du ia erabiltzen eta Valentzian egongo garen 6 hilabete hauetan gogoz hartu behar du. Koreako eskolan ingelesez hitz egiten zioten, mendebaldar aurpegia ikusten ziotelako, eta ni ere ez naiz ahalegindu umeak korearra ikas zezan. Gaztelera eta ingelesa ikastearekin nahikoa duela uste dut. Gainera, Ermura etortzen garenean amamak euskaraz egiten dio... Badakit umeak asko 'xurgatzeko' gai direla, baina irakatsitakoarekin denbora luzez kontaktuan badaude. Momentu puntualak badira, ezinezkoa da.

**- Eta hango umeen hezkuntza ezberdina da?**

Akademikoki asko eskatzen diete umei, eta klastetik iriteten direnean mila gauza egin behar dituzte. Esaterako, taekwondoa euren kirol ofiziala da, beisbolekin batera. Futbola, berriz, oso be-

rria da. Umeak unibertsitate-ra joatea da euren kezkarik handiena, nahiz eta dirurik ez izan. Itxurak egitea oso garrantzitsua da eta gainera oso lehiakorrak dira, japoniarren moduan.

**- Zelan bizi da atzerritar bat Seulen?**

Korean ezberdindu egiten dira etorkina eta 'expatriado' a. Dirurik ez dutenak etorkinak dira eta gainontzeko kanpotarrei 'expatriados' deitzen diete.

**- Ezberdin tratatzen dituzte?**

Bai. Guk 'expatriatuetarako' eskola batera eramaten genuen Ivan, gure semea, eta bertan alemaniar, ingeles eta atzerriko jendearekin zegoen. 'Expatriatuek' bizitza paraleloa daramate Korean. Eurentzako kiroldegiak dituzte eta bertara korear kopuru mugatua sar daiteke, kiroldegia korearrez bete ez dadin. 'Expatriatuen' eskoletara korea-

## "Expatriatuentzako kiroldegi eta eskolak daude. Bertan korearrak ezin dira sartu"

rrak ezin dira sartu pasaporterik ez badute... Hemen ezinezkoa litzateke.

**- Ezberdintasun asko dago gizarte-mailen artean?**

Ba egia esan egon, badaude, baina ez dira kaleetan eskaleak ikusten. Kulturalki korearrak oso harroak dira eta horrek ere eragina izan dezake. Beste aldean, auto europar handi gutxi batzuk ikusten dira, baina orokorrean denek dute kotxe mota berdina, apartamentuetan bizi dira... Ez da hemen beste igartzen. Japoniarrek diru gehiago dute eta igartzen da. Askotan asteburu pasa joaten dira Korea, erosketak egitera.

**- Angel unibertsitate**

**joaten zenean, zelan pasatzen zenuen eguna?**

Lana topatu nuen, umeen irakasle moduan, orduka. Ivan eskolan utzi eta gero, ingeleseko klaseak ematen nituen.

**- Janaria zelakoa da?**

Niretzako izugarri ona da, baina europar askok ez dute probatu ere egiten. Janari pikantea izaten da gehien bat, antzinako ohituretan oinarrituta, baina nik gustukoa dut. Lau euroren truke bazkaldu dezakezu eta leku guztietan daude jatetxeak. Ez du txinatar eta japoniarrekin zerikusirik. Barazkiak erabiltzen dituzte gehien bat eta arroza osagarri gisa jaten dute. Arrain asko, okela parrillan, zopak, algak... Beste gauza asko ez ditut probatu, zetarrik, esaterako; txakurrak jaten dituztela esaten dute, baina nik ez ditut ikusi.

**- Krisiak eragina izan du Korean?**

Ez, ez da batere igarri. Samsung, LG, SsangYong, Kia, Hyundai... korearrak dira eta euren enpresak asko babesten dituzte. Esaterako, Samsung eta LGk ez dute utzi iPhone Korean sartzeko orain arte, eurek dituzten antzerako produktuekin nahi izandako merkatu-kuota lortu arte. Horretarako gobernuak presionatzen dute eta euren nahiak betetzen dituzte. Ekonomia oso babestuta dago.

Dorleta Vidal



solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21  
ERMUA



Drogeteniturrri, 175 zkia.

# Nire aitte eta ama, Kaiku parie!

**A** benduaren 23en, egunero lez amama Arrate, amama Joxepa eta osaba Arkaitzekin bazkaldu neban Beinguen. Amatxo normalien baino goizago etorri zan bazkaltzera, ni Pirritxekin lo eittera juen baino aurretik. Eta Pirritxekin ez, Porrotxekin egin neban egun hartan lo Mallegoixen, nire gelan.

Esnatu nitzenien aita oso nerbioso ikusi neban, eztakit zer pasatzen jakon, amatxokin bronkie euki ebala pentsau neban, gure amatxok dauken 'mala letxiar'... Baina ez zan ha egun normala. Jente pilo bat ikusi neban etxien atzera eta aurrera. Batek galderak eitten eutsiezan amai eta aitai, traste baltz bat ahuan parien ipintten eutsen bittartien. Beste batek hiru hankadun eta begi haundi bat euken makina batetik begitzen eutsien, neska batek hauts batzuk ipini eutsiezan arpeixen, beste neska batek egurrezko gauza baltz eta erreixa zurixek eukezan batekin 'klak' eitten eban euren aurrin. Eta hasi ziren berbetan, beti bardine, euskeraz eta erderaz eta 'jajaja' barre egiten eban erratzen ziren bakotxien, ikusten zan urduri euezala.

Gizon batek belarrixetan gauza biribil batzuk eukezan ipinitte eta makila luze batekin pelutxe bati eusten

eutsen aitan eta aman buru gainien. Ez dakit zertarako izengo zan ha, baina botaten zittun euri zaparradekin busti-busti egingo zan ba! Ni ez ninduen biher, orduen amama Bittori, aittitte Eustasio, izeko Itziar eta Garazirekin egon nitzen etxien.


Halako baten etorri zan amatxo eta eruen ninduen kanpora. Gizon altu batek makina baltz batekin argi haundi bat pizten eban eta

'beste bat' esaten eban, eta 'beste bat, azkena'.

Halako baten juen zien, 15 pertsona edo egon zien etxien. Hurrengo egunien hasi zan dana, periodikuen agertu zirenien aita eta ama. Danek 'Mister Kaiku', 'familia Kaiku' eta holakuek esaten eutsiezan. Badakizue amak gordeta daukezela egunkarixetako argazkixeketa? Gero gogoratu eta barre eitteko izengo da edo. Tele-


bistan be ikusten dittut; arrarue da bapatien ama bi eta aita bi eukittie ezkatzien. Niretzat aita bizkorregi egitten dau berba eta amak ez dau sinisten zer esaten daben: "lan honetaz bizi gara, bihotzez egiten dogu", esaten dau telebistan, baina ez dau golpe zorrik jotzen etxien. Gero niri esango deuste guzurrik ez dala esaten.

Eire Markina Aranburu



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**



943172665 ERMUA  
**Zubiaurre 20**

*Pintxoak, otartekoak...  
eta hostalarien umore ona*



## JASOKUNDEKO NESKAK 'OH HAPPY DAY'N

Urtarrilaren 15ien grabatu eben gure neskek lehen programa Euskal telebistaren Miramongo egoitzan. Telebistan ikusi ahal izan dogu, baina urtarrilaren 23en. Bederatzi taldek hasi dabe lehia programa honen bigarren edizinuek, euren artien Aho-tsak Gazte, Astigarragako taldie non Orrospengo Iraitzek Mallabiko neskei konpetentzia egingo deuten. Jasokundeko neskek Shania Twain kantari kanadarraren 'Man, I feel like a woman' kantu ezagune kantatu eben. Martxoso eta show-z bete-ta, batzuk nahiko estu ibili baziren be praka modernuokin. Gogotsu eta gustora arittu ziren mallabittarrak eta epai mahaixek egin eutsen balorazio ona entzun eta gero, gusturago. Gure Izaro 'Lolita' izan zan protagonista, bakarlari lana egin eban-eta berak. Lorak eta lorak esan eutsiezan Izarori, eta danak merezitezuek gainera. Arriskuz kanpo dago Jasokunde, beraz hurrengo saiuen lasai kantatu ahal izengo dau bere abestixe. Hori bai, ezingo dira larregi erlaxatu.

## BRUESA ERAIKUNTZA ENPRESA KALBARIO KALIEN 36 ETXEBIZITZA EGITTIAREN KONTRA

Bruesa eraikuntza enpresak administrazioarekiko auzibide errekurtsioa jarri dau Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio eta Hirigintza Sailak onartu zituen UAR-2, UAR-6 eta UAR-7 arau subsidiarioen behin betiko aginduaren kontra. Udalak kontenziosoan agertzea erabaki dau demandatukide moduan.

Udalak Kalbario kalien erortzear daguezan etxien inguruan (UAR-6) etxe tasatuek eraikitzeo proiektue aurkeztu eban Bizkaiko Foru Aldundixen. Hemen begi onez hartu eben proiektue eta honen alde egin eben. Guztire 36 etxebizitza tasatu egitea proposatzen da udaletik, bakoitza bere garaje eta trastelekuarekin. Etxe tasatuek egiterako orduen, udalak berak ipintzen dittu baldintzak. Bruesa enpresiek Kalbarixoko hiru etxe erosi zittun, kalien goiko partien dagozanak, bertan luxuzko etxe eta apartamentuek eraikitzeo asmoz eta prezio librien. Beraz, etxe tasatuek egitea "ez zaio interesatzen, ez zaizkio zenbakiak ateratzen ezin dutelako negozio-rik egin" dino Mallabiko alkate Aitor Loiolak. Udalak Kalbario kalerako plan integral bat egiteko proiektue dauke.

## GORPUTZAREN BIDEZ AUTOEZAGUTZA

Mallabiko udaleko Ongizate Sailak "Gorputzaren bidez autoezagutza" izeneko tailer bat antolatu dau herriko emakumei bereziki zuzendute dagueña. Eguaztenetan izango dira klasiak eskolako gimnasixuen arratsaldeko 14:30etatik 15:45etara. Gorputzaren bidez norbere kontzientzia ezagutzeko eta berezko sinismen inkontzienteez jabetzeko eta aldatzeko, aske izaten erakusten daben teknikak lantzen dira ikastaro honetan. Informazio gehixago jasotzeko Ongizate Sailera jo edo 943170327 deitu besterik ez dauke interesa daukenak.

## MALLABIKO III. FRONTENIS TXAPELKETA:

AD Mallabia Futbol Taldiek antolante, martxuen emongo jako hasierie aurtengo frontenis txapelketiari. Izena emoteko azkenengo egune otsailaren 22xe izengo da. Bazkidiak euro 2 eta bazkide ez direnek 12 euro emon biherko dabiez aurtan hirugarren edizinue beteko daben txapelketa honetan. Ige 33 pertsona lehiatu ziren Eskolako Frontoen, mallabittarrez gain, inguruko hainbat jentek hartzen dau txapelketa honetan parte eta.

## NAGUSI ETA UMIEN ZAINTZARI BURUZKO IKASTARUE MARTXAN

Langabezian dagozan emakumei bereziki zuzendutako ikastaruek antolatu dittu Ongizate Sailek. Dependentzia daukien nagusixen zaintza ikastaroak 400 orduko iraupena izango dau eta umeen zaintzakoak 300 ordukoa. Ikastarook Unibersitat Jaume I-ko Fundación Isonomiak antolatute dagoz Estatu mailako Lanerako Zerbitzu publikoaren Lan eta Inmigratio Ministerioaren bittartez (SPEE-INEM erderaz). Langabezixen daguezan 18 urtetik gorako emakumiek, nekazal gunietan bizi direnak, lehen hezkuntzako titulazioa daukienak eta nagusi zein umien zaintzan esperientzixa pertsonal nahiz profesionala daukienei zuzendute dagoz honek ikastaro honek. 2010eko lehen hiruhilebetekuen emongo dira, klase teoriko eta praktikuekin.

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MUGA**



**KALORIK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**  
2009/2010

**MATRIKULA LIBREA**



Otsailaren 10etik  
martxoaren 2ra

HIZKUNTZAK:  
ALEMANA, EUSKARA,  
FRANTSESA ETA INGELESA

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**  
Jardiñeta 3  
20600 - Eibar

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute  
[www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) orrian.  
Argibide gehiago:  
[www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) orrian  
edo 943200618 telefonoan.



**ELUR**

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

**Aldapa 1**

**943 17 60 52**

# Hartza eta Gizakia

**Otsailaren 12ko arratsaldeak urteroko bisitaria izango du kalejiran: kateatutako Hartza. Eta jendez inguratuta egingo du bere ibilbidea, txikienen miresmena lagun. Baina zelakoa da berau?**

**H**artza, ibilera baldar eta makaleko plantigrado hau, bakarzalea da eta banaka edo talde txikietan ibiltze zalea. Esparru eza-gunean mugitzea gustatzen zaio eta ez da erasotzailea, mehatxatua sentitzen ez bada behintzat. Gehienak orojaleak dira, baina landareak jaten dituzte batez ere. Negua lo sakonean murgilduta eman arren, negualdia etetzen dute beraien hartzatxoak ernaldu eta titia emateko.

Mundu osoan oso hedatuta daude gizakia eta hartza lotzen dituzten ipuin eta kontakizunak eta gehienak oso molde antzekoak dira. Beharbada erlazio horren 'arrazoia', bien arteko traza fisikoan topa daiteke:

- Biak zutundu eta hanka biren artean ibil daitezke.
- Bien oinazpia antzekoa da, plantigradoak diren aldetik.
- Biak iletsuak dira (edo izan ziren sasoi batean).



Orojalea bai, umejalea ez (2002).

Edateko, ura; lastotxoarekin bada, hobe! (2004).



- Garai batean biek behar harko zituzten kobazuloak eta hori liskarbidea gerta zitekeen.
- Biek dute neguaren gogortasuna saihestu beharra eta hartzaren neguko loaldia beti egon da presente gizakiaren irudimenean

Kontakizun batzuk diotenez, hartzari ilea moztuz gero gizakia agertzen da. Tximinotik beharrean, hartzatik etorritakoak ote gara gizakiok?

Enrique Izagirre

\* Ondoko orrian Hartzaren koplak daude. Soinu artxibokak Udaleko webgunean daude entzungai, helbide honetan:

[http://www.ermua.es/pags/index/eu\\_DetalleNoticia.asp?Id=1831](http://www.ermua.es/pags/index/eu_DetalleNoticia.asp?Id=1831), 'Informazio gehiago' estekan.

Bertan, Euskal Birusak iaz egindako liburuxka ere deskargatu daiteke. Hartzan inguruko informazio guztia jasotzen du liburuxka honek eta iaz herriko ikastetxetan banatu zen.

**DO**  
Mouth

**OSASUNA ETA EDERTASUNA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA

*Marfil*

**FISIOTERAPIA**

943 17 28 09  
Goienkale, 12 - beheko

**Infreñu**  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



# Hartzaren Koplak

Patxi Urkoren historiaren partitura eskatu digute behin baino gehiagotan eta hemen ditu txistulari, soinujole edo interesa duen edozeinek! "Patxi Urkoko etorri jakun lehengo egunian esaten..."

## ARTARRAI OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19  
ERMUA

## OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan  
zabaltzen dugu

## Cable Spot



25 urteko esperientzia dugu  
antena kolektiboak eta atezain  
automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTra egokitu.  
ETEN ANALOGIKOA  
GERTU DAGO!



EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa,  
banda zabala, kable telebista...



ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314

**INSOHNIOREN 1. DISKA**

Insohnmio musika taldeko kideak euren lehen diskoa grabatzen ari dira Mungiako Lamiña Producciones musika-estudioetan. Hasiera gogorra izan zen arren, lana aurrera joan ahala gustura sentitzen joan dira. Aste gutxi barru lana bukatuta egotea espero dute.

**DEBEGESA ETA GARRAIO PUBLIKOA**

Debegesak, mugikortasun mahaian hartutako konpromisoen ondorioz eta batez ere Debabarreneko udal-txeek bultzatuta, garraio publikoa baloreari ipintzeko kanpaina abiatu du. Horretarako, eskualdeko garraio publikoari buruzko informazio buletina eta hauen ordutegi eta mapak banatu dira etxe guztietara.

**EIBARKO HIZKUNZ ESKOLA OFIZIALEKO MATRIKULA**

Otsailaren 10etik martxoaren 2ra bitartean egin ahal izango da matrikula, Internet bidez. Modu librean matrikulatzen den ikasleak, azterketa egin eta ziurtagiri ofiziala jasotzeko aukera izango du. Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa dira aukeran dauden hizkuntzak, eta azterketak ekainean eta irailean izango dira. Azterketa horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera mailakatuta daude: A2, B1, B2 eta C1. Informazio gehiago: [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) orrian.

**Trekking-a Marokon Aste Santuan**

Artarra Mendi Taldeak Atlas mendikatean zehar trekking bat antolatu du Aste Santurako aurten. Trekking hau martxoaren 27tik apirilaren 5era izango da eta mendian ibiltzen ohituta dagoen edonork egin dezake. Ibilbidean zehar Toubkal (4165 m) eta lau mila metrotik gorako beste bizpahiru mendi igoko dira. Bestalde bereber herriak, Essaouira eta Marrakech hiri liluragarriak ezagutzeko aukera izango da. Prezioa 700 euro ingurukoa izango da: hegazkina, aterpeak, janaria eta mando zein zamaketariak barne. Interesaturik egonez gero, Artarraiko kideekin lehenbailehen harremanetan jartzea komeni da. Taldea ostegunero biltzen da, 19:30etik 20:30era Ermuko liburutegiko goiko solairuan. Horretaz gain, taldeak 2010erako ekintzen egutegia kaleratu du. Informazio gehiago nahi duenak [artarra.blogspot.com](http://artarra.blogspot.com) helbidera jo dezake.

**Ermua Merkataritza Guneko txartela**

Ermuko Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak, Ermua Merkataritza Guneak, herriko denden txartela martxan ipiniko du otsailean. Honen helburua, bezeroen fideltasuna saritu eta salerosketak bultzatzea da. Txartela doanekoa izango da, ez da beharrezkoa izango bankuz aldatzea, ordainketak zatikatzeko aukera emango du (interesik gabe) eta urtean zehar egiten diren promozio eta fideltasun-ekintzetan parte hartzeko aukera emango du, besteak beste. Gainera, erosketak txartel honekin eginez gero, puntuak lortuko dira, eta hauekin deskontuak eta opariak lortu ahal izango dira. Txartelak eskatzeko inprimakiak denda eta tabernetan daude jadanik. Eskatzen diren lehen 1.200 txartelen jabeek 5 euroko deskontu-txekea izango dute inprimakia bete duten dendan. Gainera, martxoan txartel honekin ordaintzen diren erosketetan %5eko deskontua egingo da. Ekimen honek Nafarroako Rural Kutxa eta Udalaren laguntza du.

**Euskaltegiatarako matrikula epeak zabalik**

Kaltxango AEK euskaltegiak matrikulazio epea zabaldu du. Maila guztiak eskainiko dituzte: HABEko mailen egiaztapena (1go, 2. eta EGA mailak), Hizkuntza Eskakizunak eta baita gurasoei zuzendutako ikastaro bereziak ere. Ordainketari dagokionez, hilez hil ordaintzeko aukera emango da. Gainera, Ermuko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak matrikuletarako dirulaguntzak ematen dituztela jakinarazi nahi du Kaltxango AEK euskaltegi arduradunak. Informazio gehiago, Kaltxango euskaltegian, 943 17 19 40 telefonoan edo [kaltxango@aeek.org](mailto:kaltxango@aeek.org) helbidera mezua idatziz. Matrikula epea urtarrilaren 29ra arte zabalik egongo da.



**ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA**

**EGAÑA**  
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

**T** XALAPARTA  
ABERNA

**Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**Erdikokale 13 (Ermua)** **ENKARGYAK 943 030 299**



## Kontsumitzaile Ekologikoen elkarte baterako bidean Ermuan



Ermuko Ateneo Libertarioak Kontsumo Ekologikoko Kooperatiben inguruko hitzaldi bat eskainiko du otsailaren 9an. Hitzaldian Biolur elkarteko kideak izango dira Lobiano Kultur Guneko ikus-entzunezko aretoan 18:00etan. Kontsumo ekologikoko elkarten mugimenduak, pertsonen kontsumitzaile kontziente moduan duten botereaz ohartaraztea du helburu. Beraz, mugimendu hau ingurunea babes-ten duten produktuak eskuratzean datza. Bestalde, nekazaritza ogibide duina izatea bilatzen du mugimendu honek, ekoizlearen eta bezeroaren arteko bitartekariak saihestuz. Elikagai ekologikoak kontsumitzeak abantaila asko ditu: osasungarriak dira, ez dute gehigarri sintetikorik, ingurunearekiko jasagarriak dira, kalitatezkoak, zaporetsuagoak... eta ez dira garestiagoak. Hitzaldi honek Ermuan elkarte ekologiko bat osatzea du azken helburua.

Urte berriarekin batera, Ermuko atleten gorabeherak jasotzen dituen webgune berri baten berri izan dugu: atletismoermua.com. Bertan Lolo Garciak entrenatutako kirolarien emaitzak ikusteko aukera dago. Urtarrilaren 17an Bizkaiko Kros txapelketa ospatu zen Barakaldon eta Ander Garciandia eta Arantza Moreno ermuarrek lehen postua eskuratu zuten. Honi esker, Espainiako txapelketan parte hartu ahal izango dute Euskadiko selezioaren kide izanda, martxoaren 27 eta 28an. Urtarrilaren 16an ospatutako Euskadiko txapelketan, Arantza Morenok garaipena lortu zuen pisu-jaurtiketan eta Ander Santosek brontzeko domina lortu zuen 800 metroko lasterketan. Txapelketa hauetan, Mario Afonso ermuarrak ere parte hartu zuen.

## Atleta ermuarren albisteak atletismoermua.com helbidean

Urte berriarekin batera, Ermuko atleten gorabeherak jasotzen dituen webgune berri baten berri izan dugu: atletismoermua.com. Bertan Lolo Garciak entrenatutako kirolarien emaitzak ikusteko aukera dago. Urtarrilaren 17an Bizkaiko Kros txapelketa ospatu zen Barakaldon eta Ander Garciandia eta Arantza Moreno ermuarrek lehen postua eskuratu zuten. Honi esker, Espainiako txapelketan parte hartu ahal izango dute Euskadiko selezioaren kide izanda, martxoaren 27 eta 28an. Urtarrilaren 16an ospatutako Euskadiko txapelketan, Arantza Morenok garaipena lortu zuen pisu-jaurtiketan eta Ander Santosek brontzeko domina lortu zuen 800 metroko lasterketan. Txapelketa hauetan, Mario Afonso ermuarrak ere parte hartu zuen.

## Berbalaguneko ikasleek aukera askeko kredituak jasoko dituzte



AEK eta UPV-EHUn arteko hitzarmenari esker AEKren mintzapraktika egitasmoetan (Berbalagun, Mintzalagun...) parte hartzen duten Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek, aukera askeko kredituak eskuratu ahal izango dituzte. Bien artean adostutakoaren arabera, Unibertsitateko ikasleen zeregina mintzapraktika egitasmoan dauden euskaldun berriekin, astean ordu batez elkartzea eta euskara ikasleak ikas-prozesua amaitzen laguntzea da. Orotara 3 kreditu lortuko lituzkete ikasle horiek. AEKren Praktika Zerbitzua, berriz, ikasle horien

jarraipena eta ebaluazio txostena egiteaz arduratuko litzateke. Informazio gehiago jaso nahi dutenek Kaltxango AEK euskaltegira jo beharko dute, 943 171 940 edo 639 414 205 telefonoetara deitu edo ermua\_berba@aek.org helbidera mezua bidali.

### SAHARARAKO ELIKAGAIK BILTZEKO KANPAINA

Mendebaldeko Saharar herriarekin elkartasunerako plataformak Tindufeko errefuxiatuentzako janaria biltzeko kanpaina martxan ipini du berriro ere. Janaria eta bestelako produktuak Denbora Bankuak Zubiaurre kalean (20 zk.) duen lokale-ra eraman beharko dira, urtarrilaren 31 baino lehen.

### MALLABIKO ADITZ-TAULAK

Badihardugu Euskara Elkartek, 'Mallabiko Aditz-aulak' gidaliburua argitaratu du. Mallabiko etxe guztietara ailegatu nahi izan da; dena den, Mallabitik kanpo bizi arren, bertan jaio edo bertako jatorria duten herritar horiengana nahiko lukete iristea. Liburuxka doanekoa da eta eskuratu nahi duenak, doala Mallabiko Liburutegira edo Ermuan Kaltxango AEK Euskaltegira edo Elexostera, Euskal Birusaren egoitzara, Erdikokale 2an.

### III PIROPO LEHIAKETA

Ermuko Udaleko Euskara Sailak hirugarren Piropo Lehiaketa antolatzen du. Lanak aurkezteko epea, otsailaren 14an hasi eta martxoaren 13ra arte egongo da zabalik. 14 eta 17 urte bitartekoek 100€ko txekoa irabazi dezakete eta 18 urtetik gorakoek La Perla talasoterapia zentroan zirkuitu, masaje eta bazkaria. Lanak liburutegian, euskaltegietan, DBH eta BHI ikastetxeetan entregatu daitezke edota euskara@udalermua.net helbidera bidali.

**QUETZAL**  
gazte denda  
Baietz topatu gustuko zeozer?  
Goienkale 9  
943 17 00 65

**Proba-Leku**  
Neopaindegia - Estetika  
  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**URDAITEGIA - CHARCUTERIA**  
**MAYTE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
**ERMUA**

  
**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta 3 L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

# 'Ermua antzokia', abendurako zabalik

2008ko urrian hasi ziren Ermuko ohiko zinemaren obrak. Eraikinak aldaketa nabarmenak izango ditu bai kanpotik eta baita barrutik ere, tartean izena ere aldatuko du. Aurtengo abendurako Ermua Antzokia zabalik egotea aurreikusten da.

**E**rmua Antzokiko lanak aurrera doaz. Kanpoko eraikuntzak bere behin betiko forma berria hartu du, nahiz eta oraindik jantzi barrik dagoen. Barrutik ere, zinema zaharraren elementu gutxi mantentzen dira: egitura, forma eta balkoia, baina besterik ez.

Antzezlekua handitu egin da, alboetan zeuden zutabeak moldatuz. Gainera, atzeko partea garbitu egin da, biltegi moduan erabiltzen baitzelako orain arte, eta horrela sakoneran irabazi du, muntaia handia duten antzezlanak Ermura etortzeko bidea zabalduz. Kutzari altuera handia eman zaio,

tramoia arazo barik sartu ahal izateko eta estruktura osoa eta baita antzeztokia intsonorizatu egin dira.

Jarlekuen kopuruak behera egingo du apur bat, jarleku berriak zabalagoak direlako, bakoitzak bere beso-euskarriak izango dituelako, eta hiru pasillo egon beharrean lau egongo direlako. Lehen ilaran, gainera, nahi denean kendu daitezkeen jarlekuak ipiniko dira, elbarrituak erabili ditzaten.

Horren truke, soinu-mahaia erdian egon beharrean, atzean kokatuko da eta goiko pisua jarleku gehiago izateko egokitu da.

Argiztapena asko zaindu da eta erakin osoak sabai-



leihoak izango ditu, bai sarreran, bai alboetan eta baita eraikinaren punturik altuenean ere.

Antzokira sartzeko Iparragirre kalera jo beharko da. Hala ere, sarrera zaharra zegoen lekuan ate bat egongo da, zerbitzuetarako eta baita kultur taldeek bertan ko-

katuko diren lokaletara sartu ahal izateko ere. Sarrera honen ondoan aldageletara daraman eskailera eta igogailua dago.

Kafetegia ipiniko den edo ez erabakitzeke dago oraindik. Egotekotan, antzezlanak eta kontzertuak daudenean bakarrik egongo da zabalik.



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPUNKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefonia 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia	- Klarinetea
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoaia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



# Tokikom: Hurbileko informazioa, hurbiletik

**Tokiko aldizkariak tradizio eta onarpen handia dute euskaldunon artean: duela 20 urte hasi ziren sortzen gaur egun ezagutzen ditugunak, euskararen normalizatorako ezinbesteko tresna gisa. Denbora honetan etengabe garatzen, hobetzen eta profesionalizatzen joan dira, eta egunotan aurrerapauso garrantzitsua aurkezten ari dira haletako batzuk: tokiko aldizkariaren elkarlana eta talde izaera azpimarratzera datorren TOKIKOM marka bateratua.**

Topagunea Euskara Elkar-teen Federazioan bazkide diren 36 tokiko aldizkarietatik, 20k sortu dute TOKIKOM. Federazioko Hedabide Saileko ordezkariekin hitz egin dugu ekimenaren nondik norakoak ezagutzeko. Eñaut Agirre (Hernaniko Kronika), Eneko Azkarate (Goienkaria), Xabier Goienetxe (Aikor!), Jasone Mendizabal (Topagunea), Koldo Mitxelena (...eta kitto!) eta Joxe Rojas (Topagunea) Topagunearen Hedabide Batzordeko kideak dira, eta hurbiletik jarraitu dute TOKIKOMen sortze prozesua.

**- Zer da TOKIKOM? Nortzuek osatzen dute?**

**E. Azkarate.-** Topagunean federatuta gauden euskarazko hedabide lokalok osatzen dugu TOKIKOM. Oinarrian, marka bat da, euskarazko tokiko hedabideok, eta gure ezaugarri eta balio komunak batzen dituena.

**J. Rojas.-** Topagunean ditu-

gun azken datuek argi erakusten dute tokiko aldizkariak hedabiderik indartsuenak direla bakoitza bere esparruan. Baina hortik kanpo, hedabide bakoitza ezezaguna da. TOKIKOMen asmoa hedabideon talde izaera eta kohesioa indartzea da, barrura zein kanpora begira. Tokiko hedabideen sektorea irudikatzen duen ikurra da TOKIKOM.

## **Helburuak**

**- Zergatik eta zertarako sortu duzue?**

**E. Azkarate.-** Topaguneko euskarazko hedabideok antzatzak gara, maiztasunari, formatuari eta itxurari dagokionean; antzatzak, era berean, askotariko iritziak jorratzen ditugulako, askotarikoak direlako gure irakurle eta ikusentzuleak. Baina badira guztiok komunean dauzkagun ezaugarriak: hurbileko informazioa lantzen dugu, gai orotarikoak; masibo edo unibertsalak gara, hau da, populazio osoarenda-



**“Guztiok batuta  
220.000 irakurle  
baino gehiago ditugu”**

ko lantzen dugu informazioa; liderrak gara gure esparruan eta tokian tokiko hedabide guztien baturak bihurtzen gaitu era berean lider (irakurrienak, ikusienak...) euskarazko hedabideen artean ez ezik, Euskal Herriko edozein hedabideren artean.

**X. Goienetxe.-** Ezaugarri komun horiek azpimarratzea eta indartzea da kontua. Aniztasunari uko egin gabe, talde izaera ere badugula gizarteratzea. Eibarko lagun bat beste edozein herritara joan eta bertako aldizkaria aurkitzen duenean, horrek bere herrikoarekin zerikusia duela jakin dezan. Eta elkarlanerako kanalak irekitzea ere bai, noski. Zenbait arlotako informazioa partekatzea eta, zergatik ez, guztiok batuta 220.000 irakurle baino gehiago izateak ematen digun indarra hobeto baliatu ahal izatea ere bada gure helburua.

**- Zer produktu edo zerbitzu zehatzetan ikusiko da TOKIKOMen ekarpena?**

**K. Mitxelena.-** Aldaketarik agerikoena TOKIKOM iku-

rra bera da, kide diren hedabideen buruetan agertuko da: mantxetetan... Bestalde, esan dugunez, webgune bat izango dugu: Tokikom.com, non bisitatu ahal izango dira tokian tokiko hedabideek lantzen dituzten albisteak.

Horretaz gain, publicitate eskaintza bateratua egin ahal izango dugu eta iragarle handiei eskainiko zaie euskarri ezin hobea helarazteko mezua ahalik eta jende gehiagorengana. Ez hori bakarrik: iragarleak aukeratu ahal izango du non jarri nahi duen bere mezua: hedabide guztietan edo komeni zaionetan: herri konkretu batean, eskualde batean, lurralde batean...

**E. Azkarate.-** Horrez gain, gaur egun aldizkari askok egin dituzte tokikotasunarekin zuzenean zerikusi txikia duten produktuak: haurrentzako gehigarriak, liburuak eta bestelako argitalpenak. Epe ertainera, TOKIKOMek aukera emango digu horrelako produktuen ekoizpena optimizatu eta zabalkunde aldizkari gehiagotara hedatzeko.



# JOSU MENDIZABAL

- *Trabakuara heldu aurretik, non egon zara?*

Berrizen 11 urte, Abadiñon 2, Frantzian urtebete, Bermeon 6, Bilbon 8, Kanarietan 6, Suitzan, Hong Kong-en...

- *Beti sukaldaritzan?*

Bai.

- *Irratian aritzen zara...*

Bai, Radio Euskadin 'Boulevard' eta 'Hágase la luz' programetan sukaldaritzaz hitz egiten dut eta noizean behin Arrate Irratian.

- *Sukaldaritza tradizionala ala abangoardista?*

Oso sukaldari 'moderno' izan naiz, baina denborak apaldu egiten zaitu eta sukaldaritza naturalaren ondoren jartzen zaitu.

- *Lehengai onak ditugu...*

Oso onak, baina orain mugarik ez dago: Euskal Herriko onena izan dezakezu baina baita hemendik kanpoko hoberena ere. Guk Japoneko Kobeko idia dugu eta sekulako harrera ona du.

- *Zenbat langile dituzu?*

Zortzi.

- *Nolakoa da bezeroa?*

Gaur egun bezeroak ez du larregi exijitzen. Orain dela 25, 30 urte, nik uste dut gehiago eskatzen zutela.

- *Gustura geratzea pozgarria da?*

Bai, ahal dela oso pozik irten behar dira. Entzun egin behar zaio, baina bakoitza bere lekuan egon behar da: bera berean eta norbera norberanean. Bezeroak ez du beti arrazoia.

- *Bezero ospetsurik?*

Bai, gaztetan Julio Iglesias



**Bermeotarra. 50 urte. Bost anai-arreben artean gazteena. 'Sukaldeburu gazteena maila gorena zuzentzen' sari nazionala (23 urterekin) eta Michelin izarra lortu zuen. 1980. urtetik hona, bere lanari buruz aritzen diren berriez osatutako albuma gordetzen du. Duela 6 urte jatetxea zabaldu zuen Trabakuan. Azken erronka, txakolina ekoiztea.**

eta Pelé, esaterako.

- *Edozein aritu daiteke sukaldean?*

Ez, gustua behar da.

- *Platerik gustukoena?*

Nik jateko, arrautza friji-tuak patata frijituekin.

- *Nor gonbidatuko zenuke afaltzera?*

Lagun on bat.

- *Nork gonbidatzea gustatuko litzaizuke?*

Lagun on batek.

- *Miresten duzun pertsona?*

Arrate Maguregi (argazkian). Nire eskumako eskua

eta maitrea azken urteetan.

- *Zein albiste irakurri nahi zenuke?*

Nire bezeroak eta familia gustura daudela nire lanarekin.

- *Zinea gustuko duzu?*

Bai, asko. Baina zinera joateko denbora falta zait.

- *Ikusitako azken pelikula?*

Celda 211.

- *Azken liburua?*

'Soares Gamboa. Agur, ETA'.

- *Mendizalea zara?*

Ehiztaria.

- *Denbora librean?*

Apur bat ibili, deskantsatu, lagunekin egon...

- *Bertsozalea zara?*

Bai eta asko poztu nintzen irabazi zuen neskatoarengatik. Niri Egaña eta Unai Iturriaga gustatzen zaizkit.

- *Pilotazalea?*

Bai, Julian Retegiren aldekoa izan naiz beti eta orain Irujoren aldekoa naiz. Maila eta jenio gogorrena du.

- *Jenioa duzu zuk ere?*

Bai, larregi askotan, eta jenioa duen jendea gustatzen zait. Bai, bikotekidean, baita lanean ere. Pertsona batek jenioa duenean eta begietara begiratzen duenean, faltsutasun gutxiago dago.

- *Akatsik?*

Asko.

- *Bete gabeko ametsa?*

Agian seme-alabak izatea.

- *Erretzailea?*

Bai, puru onak erretzen ditut bakarrik.

- *Zer irakatsi dizu bizitzak?*

Gogor jokatu behar dela, zintzotasunean eta profesionaltasunean. Gogor jokatu-ta, sasoi ezberdinak daudelako bizitzan eta niri bizitzak alde ona, erdikoa eta txarra erakutsi dit. Gogorra hauxe da.

- *Krisia?*

Neurri batean edo bestean, denok igarri dugu.

- *Zer eskatu diozu 2010ari?*

laz baino hobea izatea, pasa den urtea gogorra izan baita. Eta osasuna.

Dorleta Vidal

**Yoga eskola**

**Sanatana Dharma**

\* Arnasketa.  
\* Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea  
Informazioa: 943748593 edo 685722131 (Idoia)

**TELEFLOR INTERNACIONAL**

**Zubiaurre 14**  
**Telef. 943 17 28 88**  
**48260 ERMUA**

**EGUZKILORE**



## Pedro Horrillo eta Igor Astarloa, Txirrindulari handiei omenaldia

Urtarrilaren 15a eta 16a egun garrantzitsuak izan ziren Pedro Horrillo eta Igor Astarloarentzat eta baita txirrindularitza zaletuentzat ere.

Ostiralean, hilak 15, Pedro Horrillok Italiako Giroan izandako istripuaren ostean Ermuan jasotako sinadurez osatutako liburua jaso behar zuen. Ekitaldi xumea izan behar zuen, baina udaletxeko batzar gela, Horrilloren ondoan egon nahi zuen jendearekin bete zen: familia, lagunak, zaletuak... Batzar gela txiki geratu zen.

Ekitaldian Horrillok txirrindularitza utzi egiten zuela adierazi zuen eta, opor ostean edo, despedida egingo zitzaiola komentatu zuten bertan bildutako politikariek. Horrillok liburua, plaka, Ermuko eskumuturrekoa eta Ermua CD taldeko kamiseta jaso zituen, besteak beste.

### Igor Astarloari agur

Bere karrera profesionalean 2000. urtean hasi zen eta 10 urte geroago agur esan dio txirrindularitzari Igor Astarloak, hainbat eta hainbat garaipen lortu ondoren.

Bere despedida Cafés Baquék antolatu zuen eta bertan maila goreneko txirrindulariek parte hartu zuten, Indurain, Gorospe anaiak, Tonkov, Txurruka eta Beloki, besteak beste. Ermuko txirrindulari profesionalak diren Aitor Gal-



dós eta Aitor Hernández, Astarloaren ondoan egon ziren, aurreko egunean Horrilloekin egin zuten bezala.

Ekitaldia udaletxean hasi zen 15:30ean. Bertan txirrindulari eta zaletu guztiak batu ziren. Jarraian herriari bira eman zioten bizikletaz hainbat bider, bai profesionalak eta baita zaletuek ere, eta jarraian omenaldiari hasiera eman zitzaion plazan.

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, Igor pozik zegoen eta hainbat momentutan hunkitu egin zen. Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak eta Baquék plaka oroigarriak eman zizkieten, Ermu-

ko dendari eta Ostalarien elkarteak Ermuko eskumuturrekoa eman zion, Ermua CDk bere kamiseta eskaini zion eta bere lagunek txapela eman zioten. Horrillok ere omenaldian parte hartu zuen eta Igorren ondoan egon zen hainbat momentutan. *“Eskerrik asko elkarrekin konpartitu ditugun momentuengatik. Hasieran, Santa Anan bizikletan elkarrekin ibiltzen ginean eta gero ere, bidaietan etxetik kanpo egon garenean, eta zorionak zure karreran lortutako garaipenengatik”*. Igorrek ere, eskerrak eta zorionak eman zizkion Pedro Horrillo eta herriko ume guztiak txirrindularitzan aritzera animatu zituen. *“Txikitan nik ez nuelako sekula imajinatu hain urrun iritsiko nintzenik”*, esan zuen Astarloak. Agur bioi eta eskerrik asko!

Egon ziren, besteak beste, Miguel Indurain, Gorospe anaiak, Marino Lejarreta, Pável Tonkov, Joseba Beloki, Mikel Zarrabeitia, Roberto Laiseka, Txomin Perurena, Javier Mingez, David Etxebarria, Unai Etxebarria, Mikel Pradera, Gorka Arrizabalaga, Amets Txurruka, Iker Camaño, Dioni Galparsoro, Haimar Zubeldia, Jorge Azanza, Markel Irizar, Aitor Galdos, Aitor Hernández, Pedro Horrillo, Josu Agirre, Iñaki Isasi eta hainbat txirrindulari profesional, amateur eta zaletu.



## Pub Dakota



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

### Ardo banatzailea:

Riedel  
Avgvstvs  
Clos Mogador  
Yllera  
Cantosán  
Luis Cañas

Hugel&Fills  
Anima Negra  
Irahe  
Cillar de Silos  
Vriego  
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**  
TELEFONOA: 943 17 60 75

Argazki hau Andra Mari egunean aterata dago. 1969ko abuztuaren 15ean, mezatan kantatu ondoren eliza aurrean egindako argazkia da.

Bertan agertzen dira:

Jose Mari Urkidi, Iñaki Sarriugarte,  
Juan Ruiz, Julian Albino Pradera,  
Cesario Pradera, Emilio Pradera,  
Felix Pradera, Placido Pradera,  
Jose Luis Areitioaurtena, Juan Jose Telleria,  
Eugenio Aranburu eta Pedro Mari Areitioaurtena



**1969**  
**(MALLABIA)**

**(ERMUA)**  
**1974**



'Santiago Apóstol' ikastetxea. 1973 - 1974

Goiko lerroan: Miren Cruz, Rita Salgado, Eugenia Duro, Manoli Sotelo, Angelines Sotelo, M<sup>o</sup> Mar Matos, Nati Pérez, Amaia Txurruka eta Joaquina Nogales. Erdian: M<sup>o</sup> Feli Lavado, Ana Isabel Pérez, Nieves Santamaria, Maribel Fernández, Asun Domínguez, Consuelo Sáez, M<sup>o</sup> Carmen Calle, M<sup>o</sup> Ángeles Nogales eta Eli Areitioaurtena. Behean: M<sup>o</sup> Jose Goigana, M<sup>o</sup> Carmen Pérez, Flori Maeso, M<sup>o</sup> Jose Barazal, M<sup>o</sup> Carmen Barambio, Rosa Oneca, Ana Sole Vázquez, Rosa Pacios, Puri Mojón eta Estibalitz González. Irakaslea: Elena Blanco.



Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

Drogeteniiturrj, 175 zkia.



[www.joyeriasenen.com](http://www.joyeriasenen.com)





Urtarrilak 26  
Zorionak Amatxo, Segi horrelako jatorra. Joane, Haimar eta Aitaxoren partez.




Urtarrilak 12, 12 urte  
Zorionak Iker, familia guztiaren partez eta musu handi asko.

**Eva María García**

Abenduaren 26an hil zen,  
56 urte zituela

*Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu haren senide eta lagunei.*

Euskal Birusa



Otsailak 21  
Zorionak Unai etxeko guztien partez, bihurri samarra bazara ere, horrela maite zaitugu! Musu handi-handi bat.




Urtarrilak 28, 12 urte  
Zorionak Oier! Musu handi bat ama eta aitaren partez. Txapeldun!!

**Irene Aldalur**

Abenduaren 20an hil zen,  
Gasteizen, 91 urte zituela.

*Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu haren senide eta lagunei.*

Euskal Birusa



Urtarrilak 30, 7 urte  
Zorionak Galder familia guztiaren partez eta musu handi asko.



Otsailak 8  
Zorionak Luken zure lehen urtebetetzean. Muxu handi bat aita eta amaren partez.

Hurrengo alerako azken eguna:  
**OTSAILAK 15**

Zer edo zer saldu, erosi edo alokatu nahi baduzu, bidali zure iragarkia [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera edo 943 17 93 50 telefonora deitu.

Bestalde, norbait zoriondu nahi baldin baduzu, Drogetenitturrin kaleratu ditzakegu zure lagun edo senideen argazkiak eta zorion agurrak. Bidali helbide berdiner.

**drogetenitturri**



943 17 93 50  
Erdikokale 2, 1 - Elexoste  
[www.euskalbirusa.org](http://www.euskalbirusa.org)

*Euskara eta euskaltegia egin biak zureak*



Teresa Murga, 2. solairua  
Tel. 943 17 09 25

**IAKADEMIA**  
**ERMUA INFORMATIKA**

TRESNERIA ETA OSAGAI INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g  
Telefonoa (943) 17 90 38

**IZOTZ KONJELATUAK**

Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak  
943 17 41 01  
Arrasateko Merkatua  
943 77 05 98

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**



## Iosu Yarza

**TABERNARI ETA  
ERRETZAILE PASIBOA**

# Tabakoaren legea

Tabakoaren lege berriaren araberaz ezin izango da leku publiko itxietan erre. Beraz, terrazetan erre ahal izango da, baina taberna barruan ez. Legea onartuta dagoen arren, batek daki noiz aplikatuko den, baina guri momentuz ez digute ezer esan. Laster izango dela dirudi; xehetasun teknikoak besterik ez omen dira falta, hau da, legea udaltzaingoa, ertzaintzak edo armadak be-tearaziko duen eta harrapakina zeinen artean banatuko den. Hau guztia erabakitakoan hasiko da sarraskia. Isunak erretzaile eta tabernariei zuzenduta egongo direla argi dago. Merkataritza askatasuna dela eta, Tabacalerarekin momentuz sartuko ez diren zurrumurrua dabil.

Ozonoa txikitu eta lurra kutsatuz etekinak lortzen dituzten multinazionaleri mugak jartzeko gai ez direnek (merkataritza askatasuna dela eta), herritar apalari argi azaltzen diote nola jokatuko behar duen: kartoia eta papera ontzi urdinean, beira ontzi berdean, plastikoa horian, motorean kaskoa, autoan gerrikoa, txakurrak lotuta, kaka poltsara, tabakoa kanpora. Hala bedi!


Ikerketa sakon bat egin eta gero, lege honen ondorioz jende gutxiago tabernara etorriko dela jakin izan dut. Neguan, batez ere. Askorentzat erosoago izango baita etxean lasai egotea, tabernan sartu eta irtetzen ibiltzea baino. Kasu honetan ez da merkataritza askatasuna ezta krisiaren eragina ere kontutan hartzen. Kasu honetan osasuna da garrantzitsua. Lege hau tabernarientzat loteria bezalakoa da; dirua irabazi ez, baina osasuna soberan edukiko dugu hemendik aurrera.

Erretzen ez dutenen osasuna AEBetako muga baino hobeto ba-

bestu behar denez, normala da ospitale, liburutegi, autobus eta horrelakoetan ez erretzea, baina taberna beste gauza bat da; gure bizio xumeez gozatzeko paradisu txikia, alegia. Fundizioko langile batek lanean hamar ordu eman ondoren, atsedendian mikrouhin-labean berotutako hamburgera bat janda eta ordu betez auto ilaran kea irensten egon ondoren, lagun artean ondo merezi-tako ardotxo edan edota zigarrotxoa erretzeko leku ezin hobea.

Bakoitzak bere gorputza nahi duen moduan kutsatzeko eskubi-dea aldarrikatzen dut. Hiri handietan bizi izaten, eguzkia hartzen, A gripearen txertoarekin, erretzen edo erretzaileen tabernetan sartzen. Eta horretarako erretzaileen zein ez erretzaileen tabernak egon beharko lirateke. Hau nola lortu ahal da? Formula ugari egon daiteke, baina niri ez didate konponbideak bilatzeko ordaintzen, beraz bakoitzak bere lana egin dezala, baina beste-ona oztopatu gabe.

**“Taberna gure bizio xumeez gozatzeko paradisu txikia da”**



**IKASTOLA**  
38 urte Ermua  
euskalduntzen



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko



**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA  
VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es



- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA



# Taberna guztietan erretzearen debekua zer iruditzen zaizu? Uste duzu beteko dela?

Ondo deritzot. Ni ez naiz erretzailea eta parranda egitera ateratzen naizenean, nik neuk erre dudala ematen du. Uste dut legea ezarri ahal izango dela: zailtasunak egongo dira, baina kontu kulturala denez, azkenean lortuko dela uste dut.



**Roberto Martín. 34 urte. Langilea**

Alde batetik ondo iruditzen zait. Hemen nahiz eta ez gauden oso ohituta, Europa osoan zabaldua eta ezarrita dago lege hori. Beste alde batetik, agian zailtasunak egon daitezke hasieran, baina denborekin ohitura eta kultura aldatuko direla pentsatzen dut.



**Iker Sanz. 32 urte. Langabetua**

Oso gaizki iruditzen zait ostalaritzan ezartzea. Tabernetara joatea norberaren erabakia da, beraz, egon beharko lirake baita ere kerik gabeko tabernak, baina ez dakit bideragarriak diren. Debekatzen badute ohituko gara eta errespetatu beharko dugu.



**Mari Luz González. 36 urte. Langabetua**

Oso gaizki iruditzen zait. Pentsatzen dut tabakorik ez luketela saldu behar edo tabakoa bera debekatu beharko luketela, osasunarentzat hain txarra bada... Behartuta egongo gara eta ez dugu beste aukerarik izango, tabernariak pena ematen didate.



**Reme Vargas. 45 años. Langilea**

Nik erretzeari utzi badiot ere, ez dut ondo ikusten. Izan ere, badirelako tabernak dirua gastatu dutenak espazio ezberdinak moldatzen. Orain, egindako diru inbertsioak ez du ezertarako balio. Zaila iruditzen zait legearen aplikazioa, ezin dut imajinatu tabernetan ez erretzea.



**Toño Gallego. 31 urte. Langabetua**

Ni erretzailea naiz eta taberna batean egiten dut lana. Gaizki iruditzen zait, horren txarra bada irtenbidea tabakoa debekatzea litzatekeelako. Baina tabakoak dirua uzten du eta interes ekonomiko handiak daude bere inguruan. Hipokresia dela uste dut.



**Rosario Murillo. 32 urte. Langilea**

Testua: Alazne Aiestaran

Bar London  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

optika  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 7**  
'City of ember: en busca de la luz'

**Hilak 14**  
'Munduari bira doan'

**Hilak 21**  
'Hotel para perros'

**Hilak 28**  
'Short, la piedra mágica'  
17:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

**ZINE-KLUBA (Zine erotikoaren zikloa)**

**Hilak 4**  
'Ma mere'

**Hilak 11**  
'No mires para abajo'

**Hilak 18**  
'Melissa P'

**Hilak 25**  
'Los burdeles de Paprika'  
19:00 eta 21:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

**MUSIKA**

**Hilak 4**  
Agata Deunaren kalejira. 18:00etan.

**Hilak 20**  
Blues Kontzertua: Barence Whitfield & Petti. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

**Hilak 27**  
Ermuan Kantuan. 12:30ean. Orbe Kardenalaren plazatik.

**Hilak 27**  
Flamenco jaialdia (Andaluziako eguna). 18:30ean. Andaluziako zentruan.

**ANTZERKIA**

**Hilak 5**  
'El pico de las viudas'. Ermuko Antzerki tailerren eskutik. 22:15ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

**Hilak 26**  
'Poesencia'. Interior Antzerkiaren eskutik. 22:15ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 1etik 14ra**  
Margoa: 'Patologías nº2: el arco senil' Jean-Claude.

**Hilaren 16tik 28ra**  
Zeramika: Ermuko zeramika eskolako ikasleak Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara. Asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 6**  
Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Udal liburutegian.

**Hilak 27**  
Haurrentzako antzerkia: 'Ali Baba', Txalo Produzioen eskutik. 17:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 3€.

**INAUTERIAK**

**Hilak 11**  
Oilarraren joko. 15:00etan  
Haurrentzako discoteca. 17:00etan.

**Hilak 12**  
Hartzaren kalejira. 18:00etan

**Hilak 13**  
Haurrentzako txokolatjana. 18:00etan  
Haurrentzako erromeria: Xilipurdi taldea. 18:30ean  
Kalejira: Irulitxa txaranga. 19:00etan

Haurrentzako mozorro lehiaketa. 20:00etan  
Blues & rock, n roll kontzertua: Big Mama Montse Blueslab3. 23:30ean.

**Hilak 16**  
Dendari eta ostalarien bandaren kalejira. 8:30ean  
Haurrentzako diskoteka. 16:00etan

Kale ikuskizuna: 'Macroscopi'. Scuraplats. 19:00etan  
Folk kontzertua: Korrontzi. 23:30ean  
Ekitaldi guztiak Orbe Kardenalaren plazan

Patxi López

**Harategia**



**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian*  
*Hazitako Txalak*  
GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA  
Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**OPTICA**  
**J. CASADO**



Lenteak  
Audifonoak  
Graduatutako Antiajuak  
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2  
Tfnoa. 17 33 57

**ERMUA**


**MIGUEL**  
**Harategia**



**TXORIZOAK**  
**ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3  
☎ 17 05 63  
**ERMUA**  
(Bizkaia)

**hamburguesería**  
**TITANIK**



*Pintxo dastaketa*  
*poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



**UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA**

**ARRATE GARITAONANDIA**

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66  
Urtzaille 1, 1. Eskuma 646 233 182

**NATURHOUSE**  
NUTRICIÓN Y DIETÉTICA

**“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”**

AINARA IRIONDO ANSOLA  
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea. 943 17 63 72

**Irale**  
horts klinika

**Leire Irazu Garitaonandia**

- Ortodontzia
- Pedriodontzia
- Odontologia orokorra
- Aho zirujia
- Inplanteak

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34  
[www.irale.com](http://www.irale.com)

**KIROL MEDIKUNTZA**

**Indartu**

**ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA**

- Kontsultak eta errekozimendu medikoak • Fisioterapia
- 3. adinekoen mantenimendua • Esfortzu frogak • Urgentziak
- Masaje terapeutikoak eta kirol masajeak
- Laneko patologiak eta erizaintza • Kirol errekozimendu medikoak
- Ermuko IMdra abonatuak % 10eko beherapena lesio kontsultetan
- Odol ateratze zentroa, egun berean erantzuna jasoz

**ERA GUZTIAK MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA**

Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 • 943 17 21 16  
Faxa: 943 17 21 12 • e-mail: [indartu@euskaltel.net](mailto:indartu@euskaltel.net)

**san pelayo**  
clínica dental horts klinika

- Inplanteak
- Ortodontzia
- Periodontzia
- Horts-zuriketa / Estetika dentala
- Odontologia orokorra
- Protesiak
- P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

**OSASUN GIDA**

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**HORTZklinika**  
nerea iñiguez

- Odontologia orokorra
- Estetika dentala
- Inplanteak
- Ortodontzia
- Protesiak
- Periodontzia
- Zirujia

San Ignazio, 4 ERMUA  
943 03 05 12

fisioterapia  
eta osteopatia  
zentroa  
**aitziber**

Aitziber Fernández  
Telf. 943 17 60 95  
629 88 70 89  
Sexto Centenario 13,behea  
48260 ERMUA (Bizkaia)

**OSASUN GIDAN AGERTU NAHI BADUZU DEITU  
943 17 93 50 edo 688 63 28 76  
TELEFONORA**



Mendi-irteerak, federatzeko tramiteak, liburuak,  
mapak, mendiko materiala, argazki emanaldia,  
informazioa, mailegu zerbitzua, ikastaroak eta  
asko eta askoz gehiago.



<http://www.artarrai.com>

<http://artarrai.blogspot.com/>

[artarrai@euskalnet.net](mailto:artarrai@euskalnet.net)

ostegunero 19:30etik 20:30era liburu gainean gaituzu